



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 30ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko ekainaren hogeita hamarrean, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK.- 2020ko ekainaren 30ean eginiko Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordean aztertutakoak.

1.1) Gesalaga kalea 4 zk.an kokaturik dagoen eraikinaren (Correos) egoera eta EIT txostena.

- Eraikin horretan konponketak egin behar dira, eta eraikuntza eraisteko asmoa dagoenez, ez du merezi.

- Eraspen proiektu bat egiteko aurrekontuak eskatuko dira.

- Correos- zerbitzurako kokapen berria aztertutako da.

1.2) Usoen arazoa. Kaiola erosiko da eta elizako kanpandorrean jarriko da, apaiz berriari baimena eskatuko zaio.

1.3) Arroabeko lokal hutsen inguruan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bidaliriko ebazpena. Arroabean eskola berria martxan jarri zela eta, lehen eskola zerbitzura zuzenduriko San Isidro kalea 12 eta 15eko erakinak eta Karmengo Amaren errepidea 1eko beste zerbitzu edo helburu batzutura erabili ahal izateko eskaera igorri zen Hezkuntza Sailera.

2020ko martxoaren 10ean eman zaio sarrera Hezkuntza Saileko ebazpenari, honela dio:

Ebatzi du Zestoako Udalari administrazio-baimena ematea Arroa HLHI ikastetxeko (San Isidro kalea 12 eta 15) eta Karmengo Amaren errepidea 1 zenbakiko eraikina beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko.

1.4) A.I.L.k, Zubimusu kalea 1 zk.an fatxadan obrak egin ahal izateko, lau aparkaleku okupatzeko baimena eskatu zuen otsailaren 21ean. Bertan azaldu zuen lanak egiteko aurreikuspena bi astetakoa zela. Ondoren, martxoaren 11n beste lau okupatzeko baimena eskatu zuen. Baimena ematea erabaki da.

1.5) I.O.L.k, Aizarnako Aizarnabate bidea 3 etxebizitzan hainbat eraberritze obra egiteko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.6) M^aC.A.I. eta B.A.k, eskola sarrerako lur sailen gaia dela eta, ikusirik zer martxa daraman gai horrek, uste dute luzatzen doala. Hortaz, berehalako erantzunaren zain geratzen direla adierazten dute.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Lehena.- Gai honen inguruan egin izan diren bileretan ikastetxearen goiko lur sailen hirigintza kalifikazioa aldatzeko aukera aztertzea proposatu da.

Bigarrena.- Udala prest dago aldaketa proposamen hori aztertzeko.

Hirugarrena.- Momentu honetan, Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorraren AURRERAKINA jendaurrean dago, beraz, momentu egokia da proposamenak egiteko.

Laugarrena.- Horrela, Udalak irizten dio proposamenak zehaztu eta Udalean aurkeztea dela egokiena, horrela sakontasunez aztertu ahal izateko.

1.7) I.P.k, udal aparejadoreak maiatzaren hasieran haurdunaldiko arrisku baja hartuko duela azaltzen du. Horrela, Irati Marculeta izango da bere ordezkapena egingo duena, Urrietako Udaleko lan poltsatik deitua izan dena.

1.8) I.S.L.k, azaltzen du 2020ko martxoaren 12ko bileran, Udaleko Hirigintza Saileko arduradunekin, egungo eraikinen ordezkari egin nahi den eraikuntza berriaren ezaugarri bolumetrikoak azaldu ziren, 2020ko otsailean egindako kontsultan zehazten zen bezala.

Bilera horretan esan zen bezala, Iraoberri SL sozietatearen asmoa da eraikuntza berri hori behin-behinean zehazten den lekuan jartzea, gaur egun aztertzen eta idazten ari den Plan Berezia onartu arte.

Eraikuntza berri hori, Plan Berezia onartu ondoren, pottoketarako BOX horietako baten zati gisa berrerabiliko da; hain zuzen ere, zaldi-aziendaren azpialdean jartzea aurreikusten da. Horregatik, beharrezkoa da haren sekzio-dimentsioak eta azken eraikuntzarenak bat etortzea

Proposatutako eraikinaren profila ez onartzea erabaki da, ez baitator bat 2020ko otsailean egindako kontsultari emandako erantzunean jasotako "metroko metro" ordezkapen-baldintzarekin.

1.9) Ar.R.G.k, J.U.A.ren izenean, Lasaon, J.U.A. sustatzailearen ukuilua eraikitzeko proiektuan zorua hobetzeari buruzko txostena aurkezten du. Udalak zoruan egindako hobekuntzei "oniritzia" emateko, obra amaitu eta obra-amaierako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Lehena.- Txostenari erantsitako eranskin batean, zehazki Txaraka Kontenedoreak, S.L.ko gerenteak sinatutakoari buruzkoan, egiaztatzen da 2019ko abenduan birrindutako hormigoizko 15 kamioi ("txikitutako hormigoia") eraman zirela Zestoako Lasao auzoko pabiloira, eta horrek ez du ziurtatzen txostenaren lehen eta bigarren argazkietan ikusten den materiala enpresa horrena denik.

Bigarrena.- Hori dela eta, eskatzen da hondakinak kudeatzeko enpresaren ziurtagiri bat aurkezteko, txosteneko bat eta bi argazkiekin batera, non esaten baita bertan ikusten den materiala instalazioetatik datorren hormigoi birrindua dela.

1.10) Zestoako Herri Eskolako handitzearen inguruan, Plan Bereziaren inguruan egindako kontsultak. Udal arkitekto aholkulariak berri eman du, plan berezia idazten ari diren teknikariek izan dituen harremanak.

1.11) A.O.C.k, azaltzen du Agotetxiki baserria erosteko interesa duela (Agotebidea 4). Horrela, erosketak egin aurretik baserriarekin arazorik dagoen jakin nahi du.

Biharko egunean margotu nahi du, leihoren bat aldatu, teilatuko teilak, aterren bat edo horma apurtuta dagoen berrikuntza txikiak aldatu. Beraz, jakin nahi du ea gauza horiek guztiak egin daitezkeen.

Industrialde batean dagoela jakinik, jakin nahi du ea etxebizitzarekin jarrai daitezkeen edo egun batean bota dezaketen, Udalak edo dena delakoak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Lehena.- Baserria industrial den lurzati batean dago, "Zestoako Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen bigarren aldaketa puntuala" dokumentuak antolamenduz kanpokotzat jo duena, AG.I.1 (Agote) eremuari eta AG.I.2 (Agote II) sektoreari dagokienez.

Bigarrena.- Antolamenduz kanpoko deklarazioak esan nahi du kontserbazio- edo mantentze-lanak bakarrik egin ahal izango direla, eta inoiz ez mantentzearen xede den handitze- edo hobekuntza-lanak.

1.12) J.J.T. andereak, San Isidro kalea 9 etxebizitzako sukaldean eraberritze obrak egiteko udal baimena eskatu du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.13) M^{ra}R.A.I.k, Ertziñondo 1 etxebizitzako bainugela eta sukaldeko azulejo eta plaketak aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.14) L.U.k, ahozko kontsulta egin dio udal arkitektoari, Arroagoian etxebizitza berria egitearen inguruan. Udal arkitektoak erantzun dio ahozko kontsultari, gaur egungo legedia eta planeamenduaren baldintzei buruz eta kontuan izanik HAPO berria idazten ari garela, HAPOaren hasierako onespeneren zain egongo dela adierazi du.

1.15) S.S.L.k azaltzen du Sastarrain baserri-eskola hornitzeko ur-hartunearen obretan hutsune batzuk egon zirela horretarako kontratatutako enpresaren aldetik.

Dagozkion zuzenketak egin ondoren, eta amaitutakoan udal-zerbitzuek eta Sastarraingo arkitekto I.U. jaunak ikuskatu ondoren, baliozkotzat jo dira. Horregatik eskatzen du hartune hori Zestoako Udalak har dezala, Zestoako Udalak onartu zituen baldintzetan. Zestoako Udalak bere gain hartzea erabaki da, Ekainberrietik ur kontagailura bitartekoa

1.16) Arroabeko eskola berriko obra amaierako dokumentazioaren berri eman da.

1.17) T.-T.S.L.k, Gurutzeaga kalea 5 behean ogia saltzeko denda egokitzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.18) Gotzaindegitik informazioa eskatu dute, HAPOaren jendaurreko epea dela eta. Udal arkitekto aholkulariak elizaren jabegoko ondasunen hirigintza egoeraren informazioa igorri die.

1.19) Toribio Alzaga kalea 26ko eraikinari buruzko hirigintza egoerari buruzko informazioa eskatu dute eta Udal arkitekto aholkulariak hirigintza fitxa igorri die.

1.20) E.M.B.k, Etorrabideko Etxaburu baserrian igerileku bat egiteko udal baimena eskatu zuen. Aurkezturiko dokumentazio teknikoa, teknikari gaitu batek sinatu gabe dagoela eta zuzentzeko eskatu zaio.

1.21) J.A.O.k, Aizarnan txabola bat egiteko baimena eskatuta du Udalean. Baimena emanda dago, baina orain kokapena aldatzea eskatu du. Udal arkitekto aholkulariak esan dio horretarako ondoko partzelaren jabearen oniritzia behar duela. Horrela, hasieran baimendu zitzaion tokian egingo duela adierazi du.

1.22) Ibañarrietako A. etxea eta Sansineneako O.k obra amaierako dokumentazioa aurkeztu dute. Ikuskaritzak egingo dira egoerak ahalbidetzen duenean.

1.23) I.I.k, R.M.J.B.en izenean, Juan Erentxun kalea 10eko A. baserria eraberritzeko exekuzio proiektua aurkezten du. Onarrizko proiektua eta Udalak ontzat eman zuen, baina oinarritzko proiektu horretan ez zen aipatzen exekuzio proiektu honetan azaltzen den garaje berria. Beraz, Udalak ez du baimenik ematen garaje hori egiteko, ez baititu Udalaren irizpideak betetzen.

1.24) L.Z.k, Narrondoko gas pabiloiaren inguruan, HAPOa dela eta kontsulta egin du. Udal arkitekto aholkulariak, HAPOa idazten ari den taldearen erreferentzia eman die.

1.25) I.G.I.k, Erdikalea 4 eraikineko fatxadan konponketa obrak egin ahal izateko, andamioak jartzeko udal baimena eskatu du. Baimena ematea erabaki da eta lurraren okupazioagatik dagokion tasa likidatzea.

2.- COVID-19ak SORTUTAKO EGOERA

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:30ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,